

Osasuna garapenerako lankidetzan eta ekintza humanitarioan

2024KO TXOSTENA

E u s k a d i


medicusmundi



“Osasuna Garapenerako Lankidetzan eta Ekintza Humanitarioan” Txostena medicusmundi eta Munduko Medikuek elkarteen arteko ekimen bateratu bat da, eta 2002tik osasunaren eta ekintza humanitarioaren arloan nazioarte eta estatu mailan nahiz era deszentralizatuan Garapenari ematen zaion laguntza ofizialaren analisi kritiko bat eskaintzen du. Horrez gain, osasunari modu globalagoan eragiten dioten eta nazioarteko agenda aldiro zedarrizten duten politika, faktore eta egoera garrantzitsuenak ere biltzen ditu, munduko herrialde edo eskualde jakin batzuetan osasunak bizi duen errealitatearen analisi xehatuagoarekin batera.

Euskadiko erakundeek osasunerako lankidetzan eta ekintza humanitarioan egin duten lana aztertzen duen txosten labur hau nazioarteko egoera jorrotzen duen txosten luzeagoaren osagarria da.

Informazio guztia CooperaSalud online tresnan dago eskuragarri:


<http://www.cooperasalud.org/>

1. Espainiako lankidetzaren deszentralizazioa

Espainiako lankidetzaren deszentralizatuak autonomia erkidegoek (AE) eta tokiko erakundeek (TE) egiten duten lankidetzaren biltzen ditu. Lankidetzaren mota hau berezia da eta balorazio ona du nazioarte mailan; inguruko herrialdeetan ez da horrelako lankidetzarik gauzatzen. Lankidetzaren deszentralizatuak hazkunde ikusgarria bizi izan zuten 15 urtetan, 1994tik 2008ra bitartean; batik bat, 2005etik aurrera. Hurrengo sei urteetan, 2009tik 2014ra bitartean, aldiz, atzeraldia izan zuten eta 1998ko mailaren azpitik jartzera heldu zen. 2015etik 2019ra berriz, sendotu egin zen

lankidetzaren deszentralizatuaren goranzko joera, eta urtero 25 milioi euro baino gehiagoko igoera izan zuen. 2020an, COVID-19aren pandemiak nabarmen eragin zion joera horri, eta erakunde batzuek eutsi eta, are, garapenerako laguntza ofizialerako (GLO) bere partidak igo bazituzten ere, beste askok jaitsi egin zituzten. Halatan, lankidetzaren deszentralizatu globala 7,2 milioi euro jaitsi zen. 2021ean, lankidetzaren gora egin zuten berriz ere, 26,5 milioi euro gehiago izan ziren, eta igoera hori areagotu egin zen 2022an, GLO deszentralizatuaren % 22 handitu baitzen, aurreko urtean baino

1. GRAFIKOA. Espainiar estatuko lankidetzaren deszentralizatuaren bilakaera




ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZ-NLEIK (GARAPEN IRAUNKORREKO POLITIKEN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO ESTATU IDAZKARITZA) ARGITARATUTAKO DATUETAN OINARRITUTA


Euskadiren osasun lankidetza zifratan 2023




OSASUNERAKO GLO EUSKADI



EUSKADIREN TOKIA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEAN




EUSKADIN NORK JARTZEN DU GEHIEN OSASUNERAKO LANKIDETZAN?




EUSKADIKO OSASUNERAKO LANKIDETZAREN BANAKETA

EREMU GEOGRAFIKOA



SEKTOREA



ia 73 milioi gehiago. 2023an, lankidetza deszentralizatua 2022ko zifren antzekoa izan zen, 415,7 milioi eurokoa, % 0,56 jaitsiz.

Beste egoera batean baikorrak izatera bultzatuko gintuzketen datu horiek gorabehera, egiazor, lankidetza deszentralizatuak, oro har, ozta-ozta gainditzen du aurrekontu autonomikoen % 0,12; % 0,7ko konpromisotik oso urrun. Argi eta garbi, apustu hori ez da nahikoa, eta, gainera, zenbait autonomia-erkidegotan lankidetza politikek murrizketa handien mehatxua izan dute. Lankidetza politika elkartasun globalaren adierazpen programatua da, baina hau murriztearen aldekoek, itxuraz, naturaltasunez onartzen dute ez direla ezinbestekoak.

Txosten honek Euskadiko lankidetzaren errealitatea aztertzen du lankidetza horren kalitatea hobetzeko asmoz, batik bat, osasunari eta ekintza humanitarioari (EH) dagokionez. Aldi berean, politika hauek ekitate eza murrizteko betetzen duen eginkizuna nabarmentzen du.

Dokumentu honetako eta medicumundik eta Munduko Medikuek egindako "Osasuna Garapenerako Lankidetzan eta Ekintza Humanitarioan" txosteneko datuen analisia Garapeneraren Laguntzarako Batzordeak (GLB) eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak erabilitako irizpidean oinarritzen

da. Hau da, Garapenerako Laguntza Ofizialaren fluxuak kutxako kontabilitate-irizpidearekin —jarritako funtsak— bat etorrita aztertzen ditugu, eta ez sortzapen-irizpidean oinarrituta —konprometitutako funtsak—, zeina idatziz adierazitako, funtsekin lagundutako eta emaileak bere gain hartutako betebeharrak irimokatu bidezko konpromisoan gauzatzen den. Jarritako laguntzaren irizpideari esker, urtero jakin dezakegu emaile batek benetan egin dituen ekarpenak, eta emaile horrek dituen baliabideekiko eta beste emaile batzuekiko egiten duen ahalegina neur daiteke, urte anitzeko konpromisoaren kontabilizaziotik erator daitezkeen nahasketak saihestuz. Oro har, txosten hauetan aurkezten diren datuak, besterik adierazi ezean, aipatu Ministerioaren Garapen Iraunkorreko Politiken Zuzendaritza Nagusiak (GIPZN) bere Info@OD tresnaren bidez bildutakoak dira, eta datu horiek autonomia erkidegoek edo UPEFek (Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa) emandakoetan oinarritzen dira.

Azkenik, nabarmendu behar da 11,4 milioi euro, Espainiako TEek emandako funts guztien % 12, "100.000 biztanle baino gutxiagoko TEen GLO proiektuen zifra agregatua" izeneko atalean sartuta daudela. UPEFek datua horrela emateak eragotzi egiten du erakunde horiek lankidetzan egiten duten lana sakonago aztertzea.

DATUEN ANALISIRAKO OHARRA

Hemen aztertzen diren datuak GIPZNri igortzen zaizkionak dira, eta datu horiek ez datoz bat zehazki eLankidetzan-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak (LEEA) 2023ko memorian argitaratutakoekin. Memoria horretan honako hau baieztatzen da: "2023an Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzara bideratutako partida guztien egikaritzapen osoa 56.305.284,69 eurora iritsi zen". Kopuru hori GIPZNk Eusko Jaurlaritzari esleitutakoa baino 723.426 euro txikiagoa da. Egia da zenbateko hori ez dela oso garrantzitsua lankidetzako aurrekontu orokorrean, sektore horri esleitutako guztizkoaren % 1,3 baino ez, baina Eusko Jaurlaritzak lankidetzan egiten dituen ahaleginak zintzo islatzeko agentzien arteko komunikazioa hobetu behar dela adierazten du.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago 2022tik izugarri hobetu dela eLankidetzaren eta GIPZNren arteko koordinazioa, eta jada ez dago alde handirik urte horretan bi erakundeek osasunari esleitutako zifren artean. Horrek adierazten du bide onetik goazela osasun-sektoreak euskal lankidetzan duen interesa behar bezala aztertu ahal izateko.

2. Euskadiren Garapenerako Laguntza Ofiziala

2023an Euskadiko erakunde publikoek, osorik hartuta, 80.626.487,70 euro zuzendu zituzten Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO), 1. taulan ikus dezakegunez. Erakunde horien artean, Eusko Jaurlaritzak izan zen lankidetzarako diru gehien jarri zuena, 57.028.710,76 euro, guztiaren % 70,3. Eusko Jaurlaritzak % 0,29 igo zuen bere GLOa 2022ko urtearen aldean, 165.624 euro gehiago. Tokiko euskal erakundeek, beren aldetik, 23.597.776,95 euro zuzendu zituzten lankidetzara, aurreko urtean baino % 4,1 gehiago (980.169 euro). Tokiko erakundeek ekarpenen baitan, aldundiek 14.197.851,46 euro jarri zituzten eta udalek 9.399.925,49 euro. Euskal erakundeek GLOra zenbateko handiak bideratzea ospatzen dugu, baina espero izatekoa da lankidetzako diru-laguntzak handitzen jarraitzea % 0,7ra iritsi arte, lankidetzari eta Elkartasunari buruzko otsailaren 15eko 3/2024 Legeak jasotzen duen bezala.

Osasun alorreko lankidetzari dagokionez, 2023ari buruzko analisiak azken urteetako joera bera erakusten du. Ordainketa kopuru gordinak gora egiten jarraitzen du, baina ez da osasun-sektorerara ehuneko egoki bat bideratzeko nahikoa. Euskadiko erakunde guztien artean 2,4 milioi euro bideratu zituzten osasun lankidetzara; kopuru hori ez da nahikoa GLO kopuru guztizkoarekin alderatuz gero, nahiz eta % 9,7 hazi den (215.879 euro). Igoera horrek, batez ere, eLankidetzak osasun-lankidetzari hazi izanarekin du zerikusia, 130.573 eurotan hazi baita. TEei dagokionez, osasun-

arlorako lankidetzari ere nabarmen hazi da, eta 921.061 eurora iritsi da.

Osasunak Euskadiren GLO osoan duen garrantzia aztertzen badugu, eLankidetzak bere GLO osoaren % 2,65 osasunera bideratzen duela ikus dezakegu, eta TEek beren GLOren % 3,9. Sektorerearen garrantzia kontuan hartuz gero, ehuneko horiek oso txikiak dira; ez dira GLBko emaitzen batez bestekora (% 11,17) hurbildu ere egiten, ezta AEen lankidetzari osoaren batez bestekora ere (% 12,68), eta Espainiako lankidetzaren batez bestekotik (% 6,9) ere oso urrun geratzen da. Osasun-arlorako lankidetzak Euskadiko GLOan duen pisu txikia ez da kontu berria, errepikatuta egiten da analisi hau egiten hasi ginenetik. 2019tik aurrera, joera hau areagotu da. Egia da eLankidetzak bere lehentasun estrategikoekin bat etorritik esleitzen dituela CRS kodeak; lehentasun horien artean genero-ekitate nabarmentzen da. Hala, zenbait ekimen —batez ere sexu- eta ugalketa-eskubideekin lotutakoak— emakumeak ahalduzko ekimenez hartzen dira, eta ez osasun-ekimenez. Azterketa honetan, eLankidetzak GIPZNRi emandako datuak hartuko ditugu, beste erkidego batzuekin alderatu ahal izateko.

Finantzatutako ekintzen kopuruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 372 ekintza zenbatu zituen 2023an, baina horietatik soilik 7 dira osasunekoak, guztiaren % 1,8, alegia. Euskal TEek, beren aldetik, 593 ekintza burutu zituzten, horietatik 37 izanik osasunekoak, % 6,2. Eusko Jaurlaritzak fi-

1. TAULA. Euskal lankidetzak 2023an egindako ekarpenari buruzko datu orokorrak

	GLO/osasuneko ekintza kopurua	GLO kopurua	osasuneko kopurua	osasunaren %
AE	372/7	57.028.711	1.513.610	2,65
TE	593/37	23.597.777	921.061	3,90
GLO GUZTIRA	965/44	80.626.488	2.434.672	3,02

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

nantzatutako osasun proiektuen batez besteko kostua 216.230 eurokoa da, eta tokiko erakundeek finantzatutakoena, berriz, 24.893 eurokoa.

2023an autonomia erkidego bakoitzak GLOra bideratutako zifren alderaketa eginez gero, 17 autonomia erkidegoen artean, Eusko Jaurlaritzak hirugarren postuan kokatu zen. Historikoki, GLOra zuzentzen den ekarpenari buruzko autonomia erkidegoen arteko analisiari heldu zitzaionetik, Eusko Jaurlaritzak beti agertu da lehen postuetan eta horrek lankidetzaren sektorean interesa duela erakusten du.

Analisi hori osasunera zuzendutakora zedarritzen bada, osasunera bideratutako guztizko zenbatekoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak emandako zifrek seigarren postuan kokatzen dute. Hala ere, GLOa osasungintzara bideratzeko egiten duen ahalegina neurtuz, AE guztien artean azken aurreko postuan dago, GLOren % 2,65 soilik bideratu baitu osasunera. Atzetik Murtzia baino ez du, ez baitu baliabiderik bideratu osasunera. Aipatu bezala, AEen batez bestekotik (% 12,68) urrun dago eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzak gogoeta egin beharko luke osasunak bere lankidetzari izan behar duen rolari buruz.

2. TAULA. AEen GLOa eta osasuneko GLOa

AE	2023ko GLOa	2023ko osasun GLOa	osasuneko GLOren %
Andaluzia	20.355.174	2.993.979	14,71
Aragoi	5.809.559	284.936	4,90
Asturias	11.311.241	604.286	5,34
Balearrak	6.178.584	907.360	14,69
Kanariak	655.118	179.869	27,46
Kantabria	3.665.406	629.562	17,18
Gaztela eta Leon	7.055.502	1.501.661	21,28
Gaztela-Mantxa	3.452.537	250.000	7,24
Katalunia	93.065.663	15.125.680	16,25
Valentziako Erkidegoa	66.852.207	7.888.632	11,80
Extremadura	11.206.377	833.632	7,44
Galizia	9.335.461	1.546.895	16,57
Errioxa	2.608.787	225.768	8,65
Madril	4.913.380	664.712	13,53
Murtzia	236.000		0,00
Nafarroa	17.301.325	5.541.809	32,02
Euskadi	57.028.711	1.513.610	2,65
GUZTIRA	321.031.033	40.692.391	12,68

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

Nafarroako Gobernua: biztanleko 25,50 euro bideratu ditu. GLOan egindako gastua aurrekontu orokorraren arabera aztertuz gero, Euskadi berriz ageri da lehen postuan: 2023an aurrekontuaren % 0,398 bideratu zuen GLOra. Ehuneko horrek nabarmen gaintzen ditu AEen eta Espainiako batez bestekoak, nahiz eta oraindik urrun dagoen Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legean jasotako % 0,7ko konpromisotik.

Ikuspegi historikotik, euskal lankidetzak ez du beste autonomia erkidego batzuek izan dituzten moduko gorabeherarik jasan. Horrek, lankidetzarekiko konpromiso jarraitua duela erakusten du. Hala ere, 2. grafikoak erakusten du GLOak une kritikoak izan dituela. Hainbat urtez etengabe hazi ondoren, 2012an euskal lankidetzak ordura arteko maximo historikora iritsi zen, 54,4 milioi eurora; hurrengo urtean, % 42,5eko murrizketak aplikatu ziren, eta 31,3 milioi euro bideratu ziren GLOra. Ordutik aurrera, Euskadiko GLOak goranzko joerari eutsi dio, gorakada txikiekin, 57 milioi eurora iritsi arte; orain arte, hori da errekorra. Hala ere, 2024an legez % 0,7a blindatu arren, hodeiren bat

ikusten da zerumugan; izan ere, Legea onartu ondoren GLOa handitzea espero zitekeen, baina 2024ko aurrekontuek eta 2025eko aurreikuspenek ez dute GLOren hedapen-biderik marrazten.

Azterketa osasun-gastuaren bilakaerari begira egiten badugu, portaera erraria ikusten dugu, azken urteetan gorabehera esanguratsuak izan dituen. Eusko Jaurlaritzak 2012an bideratu zuen inoizko kopuru handiera osasun arloko GLOra: 3,4 milioi euro, orduko GLOren % 8,1. Zenbateko honek aise bikoizten du 2023koa (1.513.610 euro). Minimo historikoa 2020koa izan zen: 613.633 euro. Ordutik, osasunera bideratutako GLO hazi egin da, COVID-19aren pandemiaren aurkako borroka dela-eta. Milioi eta zazpiehun mila eurorako laguntza izatera heldu da, kopuru txikia eta egonkortu gabea.


Osasun arloa ez da euskal lankidetzaren sektore garrantzitsuenetako bat, eta hori ez dator bat Osakidetzak ordezkatzan duenarekin: Osakidetzak osasunaren eta komunitatearen ongizatearen aldeko konpromisoa, osasun-arretan elkartasuna, kalitatea, irisgarritasuna eta ekita-

3. TAULA. Erkidegoen aurrekontuaren GLO portzentajea eta AEek 2023an GLOan biztanleko egindako gastua (eurotan)

AE	2023ko GLOa (jarrita)	AEaren aurrekontua	GLOren %	Biztanleria (2023)	GLOa biztanleko
Andaluzia	20.355.174	41.077.207.630	0,050	8.631.981	2,36
Aragoi	5.809.559	7.800.013.830	0,074	1.350.124	4,30
Asturias	11.311.241	5.903.686.960	0,192	1.009.548	11,20
Balearrak	6.178.584	7.133.371.720	0,087	1.232.500	5,01
Kanariak	655.118	11.059.201.630	0,006	2.239.523	0,29
Kantabria	3.665.406	3.507.353.720	0,105	591.274	6,20
Gaztela eta Leon	7.055.502	12.752.807.820	0,055	2.391.466	2,95
Gaztela-Mantxa	3.452.537	11.571.457.310	0,030	2.102.797	1,64
Katalunia	93.065.663	47.156.286.930	0,197	8.023.743	11,60
Valentziako Erkidegoa	66.852.207	28.959.359.590	0,231	5.322.272	12,56
Extremadura	11.206.377	7.162.130.880	0,156	1.053.700	10,64
Galizia	9.335.461	14.154.837.620	0,066	2.706.577	6,59
Errioxa	2.608.787	1.898.969.370	0,137	324.142	8,05
Madril	4.913.380	28.142.467.640	0,017	7.004.389	0,70
Murtzia	236.000	7.770.713.380	0,003	1.570.183	0,15
Nafarroa	17.301.325	5.748.951.170	0,301	678.354	25,50
Euskadi	57.028.711	14.314.935.460	0,398	2.228.278	25,59
GUZTIRA	321.031.033	256.113.752.660	0,125	48.460.851	6,62

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ETA INE ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

2. GRAFIKOA. GLO orokorraren eta osasuneko GLOren bilakaera, Eusko Jaurlaritzak



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

tea ordezkatzeko zutabea da Euskadiko herritarren bizitzan. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak osasun-arloko lankidetzara bideratzen duena lankidetzara bideratutako guztizkoaren % 2,65 da, lankidetzako finantza erakunde batez bestekoaren oso azpitik, normalean % 11 eta % 15 bitarteko tartean mugitzen baitira.


Euskal lankidetzak osasun sektore bideratzen duena handitu behar du, kontuan hartuz sektore horrek herrien eta pertsonen —batik bat, pertsona kalteberenen— garapenean funtsezko elementu gisa duen garrantzia.

GLBren CRS kodeek osasunerako lau azpi-sektore bereizten dituzte: oinarrizko osasuna, osasun orokorra, sexu- eta ugalketa-osasuna (SUO), eta gaixotasun ez-kutsakorrek (GEK). Horiek oinarritzat hartuta, 2023an Eusko Jaurlaritzaren GLOak hiru arlo jorratu zituela ikus dezakegu: osasunerako euskal lankidetzaren buru, % 49 osasun orokorrera bideratu zen; ondoren, % 41 oinarrizko osasunera bideratu zen; azkenik, SUOk osasunerako lankidetzak funtsen % 10 jaso zuen. Generoa euskal lankidetzaren lehentasun nagusia izanik, SUOra % 10 soilik bideratzeak bitxia dirudi.

Azpimarratu behar da 2023an 500.000 euro, osasunera bideratutako funts guztien herena, azken urteak baldintzatu dituen COVID-19a kontrolatzeko baliatu zirela. Berez urria den osasun arloko lankidetzan, espero dugu zifra horiek ez murriztea pandemia horrek nazioartean garrantzia galdu ahala (ziurrenik 2024an jada COVIDerako laguntzak murriztu ziren). Osasun-sektoreko hazkundera azpisektoreen arteko oreka handiagoa bilatuz egin behar da. Beraz, euskal lankidetzak SUO eta GEK indartu behar ditu; biek ala biek dituzte osagaiak osasun-lankidetzara gidatu behar luketen bi elementu nagusiak sustatzeko: osasun-sistema publikoak indartzea eta populazio ahulenen osasun-beharrak asetzea.

Orientazio geografikoari dagokionez, ez da zehaztu finantzaturako % 41,21 zein lekutara bideratu zen. Horretarako bi arrazoi daude: nagusia, COVAX egitasmoaren erosi ziren txertoak dira, programa horrek hainbat herrialderi lagundu baitzien COVID-19ari aurre egiteko txertoak eskuratzen. Munduan txertaketa-estaldura zabaltea beharrezkoa izan zen, 2023an nazioarteko zeregin honek behera egin bazuen ere. Bestetik, ez da erraza osasun arreta jaso dezaten behin

3. GRAFIKOA. CRS sektoreak osasunerako euskal lankidetzan (2023)



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA


behinean Euskadin jasotzen diren adin txikikoei emandako laguntza sailkatzea¹. Eskualdekako banaketari dagokionez, Saharaz hegoaldeko Afrikak jaso zuen euskal osasun GLOren zatirik handiena, gutzitza % 42,47. Gainerako % 16,3 amerikar kontinentera bideratu zen, zehazki Ipar eta Erdialdeko Amerikara. Ondoriozta dezakegu euskal osasun-lankidetzaren geografikoki ondo bideratuta dagoela, Afrika baita osasun-arazo handienak dituen eskualdea. Hala ere, geografikoki bideratuta dauden ekintzen kopurua txikia denez (bost baino ez), garrantzitsua da ondorio hau zuhurtziaz hartzea; proiektu bakar batek eragin nabarmena izan dezake lankidetzaren orientazio geografiko orokorrean.

EUSKAL TOKIKO ERAKUNDEAK ETA OSASUNA

2023an, dakigula, zortzi euskal TEk soilik bideratu dituzte funtsak osasun arloko GLOra; nahiz eta, hasieran esan bezala, ez dakigun TEek emandako 11,4 milioi euro zein sektoretara bideratu diren eta, horrek, azterketa honetan eragina izan dezake. Euskadin, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiak nabarmentzen dira (343.558 eta 295.000 euro, hurrenez hurren): Espainiako toki-erakun-

¹ Jarduera horien artean dago Euskadin Ginea Bissauko adingabeei arreta kirurgikoa emateko Osakidetzak berak egindako akordioa. Jarduera hori euskal osasun-lankidetzaren % 6,1 da, eta Saharaz hegoaldeko Afrikara bideratutako osasun-lankidetzaren sar zitekeen, nahiz eta ekintza ez den Afrikako herrialdean bertan garatzen, Euskadin baizik. Hala ere, eta AEen arteko analisisian irizpide berari eustearren, geografikoki zehaztu gabeko jarduera-taldean mantendu dugu ekintza hau.

4. GRAFIKOA. Euskadiko osasun GLOren banaketa geografikoa (2023)



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

deen artean osasun-arloko lankidetzara diru gehien bideratu duten 4. eta 5. tokiko erakundeak dira. Donostiako Udalak ere 100.000 € baino gehiago bideratu ditu. Hiru erakundeok euskal TEen osasunerako GLOren % 83 hartu dute beren gain.

Osasunak tokiko erakunde bakoitzaren lankidetzan duen garrantziari dagokionez, Zumarragako eta Zarauzko udalak nabarmentzen dira, haien lankidetzaren % 35,75 eta % 23,17 bideratu baitzuten osasun-lankidetzara, hurrenez hurren.

4. TAULA. Osasun GLOa euskal TEetan (2023)

TE	GLO	Osasun GLOa	Osasuna %
Bilboko Udala	3.359.027	20.392	0,61
Donostiako Udala	2.042.757	126.318	6,18
Vitoria-Gasteizko Udala	2.836.745	6.130	0,22
Zarauzko Udala	310.449	71.943	23,17
Zumarragako Udala	49.846	17.822	35,75
Arabako Foru Aldundia	1.285.945	39.899	3,10
Gipuzkoako Foru Aldundia	4.857.170	343.558	7,07
Bizkaiko Foru Aldundia	8.054.736	295.000	3,66
GUZTIRA	22.796.676	921.061	4,04

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

3. Ekintza Humanitaria Euskadin

Eusko Jaurlaritzak ekintza humanitarioko politika planifikatu eta kudeatzeko duen erreferentziarako dokumentua “Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2018-2023 Ekintza Humanitarioko Estrategia (EAH)” da; estrategia hori 2026 arte luzatu zen. EAHk lau ardatz ditu: 1) Krisialdi humanitarioak harrapatutako komunitateak eta pertsonak babestea, 2) Erakunde humanitarioak indartzea, 3) Euskal herritarren informatu eta sentibilizatzea, 4) eLankidetzaren eginkizuna eta beste eragile batzuekin duen koordinazioa indartzea. Aurrekontuaren ikuspegitik, EAHk urtero gutxienez lankidetzarako funts banagarrien % 10 EHra bideratu behar direla ezartzen du.

GIPZNren datuen arabera, Euskadik, bere osotasunean, inoiz baino gehiago bideratu du EHra 2023an: 11.794.766 euro, zifra errekorra. eLankidetzak 10.050.525 euro bideratu zituen, eta tokiko erakundeek 1.744.240 euro. Hori dela eta, azken urteetan bezala, Euskadi da EHra diru gehien bideratzen duen autonomia erkidegoa.

Ekintza humanitaria Eusko Jaurlaritzaren GLO osoaren % 17,62 da, hau da, 2022an baino ehuneko bi puntu gehiago, orduan % 15 bideratu baitzuen. Euskadik gainerako AEen batez bestekoa (% 10,45) baino askoz gehiago bideratu zuen EHra, eta aise gainditu zuen gutxienez GLOren % 10 ekintza humanitariora bideratu behar dela ezartzen duen nazioarteko konpromisoa.

Autonomia Erkidegoen artean, lehen esan bezala, Euskadi lehen postuan dago, eta Autonomia Erkideek osotara EHra bideratutako zenbatekoaren % 30 Euskadik jartzen du. Atzetik, Valentziako Erkidegoa (% 25,45) eta Katalunia (% 18,8) daude.

2022an gertatu bezala, autonomia erkidegoek finantzaketa nabarmen hazi dute: 2022an baino 6,4 milioi euro gehiago. Ohikoa den bezala, Euskadiren hazkundera eta gainerako AEena desberdina da: Kataluniak eta Euskadik hazkunde horren ia bi heren jarri dituzte; zehazki, Kataluniak 2022an baino 2,3 milioi euro gehiago jarri

5. TAULA. AEek EHra zuzendutako GLOa, 2021-2023

AE	2021	2022	2023
Andaluzia	0	1.099.082	700.000
Aragoi	336.553	550.431	651.245
Asturias	50.000	359.200	1.114.900
Balearrak	531.444	950.000	878.713
Kanariak	0		0
Kantabria	331.825	97.506	283.268
Gaztela eta Leon	592.922	200.000	244.000
Gaztela-Mantxa	255.400	371.390	416.390
Katalunia	2.810.000	4.009.770	6.312.092
Valentziako Erkidegoa	2.812.862	7.966.597	8.537.767
Extremadura	1.089.600	1.350.000	1.548.279
Galizia	659.987	491.697	796.011
Errioxa	50.000	80.000	50.000
Madril	1.064.979	920.062	1.132.458
Murtzia	105.000	30.000	225.000
Nafarroa	308.000	70.000	600.000
Euskadi	8.820.000	8.548.097	10.050.525
GUZTIRA	19.818.571	27.093.832	33.542.670

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

6. TAULA. Autonomia erkidegoen EH gastua biztanleko 2023an (eurotan)

AE	2023ko EH (€)	2023ko biztanleria	EH biztanleko
Andaluzia	700.000	8.631.981	0,08
Aragoi	651.245	1.350.124	0,48
Asturias	1.114.900	1.009.548	1,10
Balearrak	878.713	1.232.500	0,71
Kanariak	0	2.239.523	0,00
Kantabria	283.268	591.274	0,48
Gaztela eta Leon	244.000	2.391.466	0,10
Gaztela-Mantxa	416.390	2.102.797	0,20
Katalunia	6.312.092	8.023.743	0,79
Valentziako Erkidegoa	8.537.767	5.322.272	1,60
Extremadura	1.548.279	1.053.700	1,47
Galizia	796.011	2.706.577	0,29
Errioxa	50.000	324.142	0,15
Madril	1.132.458	7.004.389	0,16
Murtzia	225.000	1.570.183	0,14
Nafarroa	600.000	678.354	0,88
Euskadi	10.050.525	2.228.278	4,51
Guztira	33.542.670	48.460.851	0,69

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

ditu, eta Euskadik 1,5 milioi gehiago. Hauek dira EHari egiten dioten ekarpena handitu duten beste erkidegoak: Asturiasek 755.000 euro gehiago, Valentziak 571.000 euro eta Galiziak 304.000 euro. Beste muturrean daude Andaluzia, Balear Uharteak eta Errioxa, EH murriztu baitzuten; Andaluzia da murrizketarik handiena egin duena, 399.000 euro gutxiago.

Biztanleko EH gastua aztertzen badugu -autonomia erkidego bakoitzak benetan egiten duen ahalegina neurtzen duena-, Euskadik er-

kidego solidarioena izaten jarraitzen du, urtean 4,51 euro bideratzen baititu biztanleko EHra, AEko batez bestekoa baino 6,5 aldiz gehiago (0,69 euro pertsonako). Ostean, Valentziako Erkidegoa (1,60 euro biztanleko) eta Extremadura (1,47 euro biztanleko) daude. Beste muturrean, Gaztela eta Leon (0,10 euro biztanleko) eta Madril (0,16 euro biztanleko) daude; eta batez ere, Andaluzia (0,08 euro biztanleko), urteetan zehar EHra funts gehien bideratu dituen erkidegoetako bat izan dena.


DATUEI BURUZKO OHARRA

Txosten honetan aurrez adierazi den bezala, EHko proiektuei esleitutako GLBren CRS kodeei dagokionez, aldeak daude GIPZNren eta eLankidetzaren datuen artean.

eLankidetzaren 2023ko memoriako datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak ekintza humanitarioari 9.904.184 euro esleitu dizkio guztira, eta GIPZnk, berriz, 10.050.525 euro adierazi ditu.

Aurreko urteetan bezala, txosten honetan GIPZNren datuak erabili dira, AEen arteko datuak alderatzeko aukera ematen dutelako.

5. GRAFIKOA. EHren bilakaera, Eusko Jaurlaritza (eurotan)



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAN OINARRITUTA


Ekintza humanitarioaren bilakaerari buruzko 5. grafikoa erakusten duenez, 2013ko beherakada handiaren ondoren —Euskadik finantziarioa da handiaren ondoren—, finantzaketa azkar berreskuratu zen 2014an eta EHra bideratutako funtsak hirukoiztu egin ziren. Gorakada hori gorabehera txikiekin mantendu zen 2020ra arte, urte horretan funtsak ia hirukoiztu egin baitziren. Ordutik, EHra bideratutako finantzaketa hazten jarraitu du. Hazkunde garrantzitsu horrek, bereziki 2020tik aurrerakoak, isla izan du EHra zuzendutako GLOren ehunekoan: 2019an % 5,98 izatetik 2023an % 17,62 izatera igaro da, eta horrek agerian uzten du Eusko Jaurlaritzak ekintza humanitarioarekin duen konpromisoa.

Eusko Jaurlaritzaren EHren banaketa geografikoari dagokionez, Palestina izan zen 2023an funts gehien jaso zituen lurraldea, 2.175.172 euro (2022an baino % 65 gehiago), aurrekaririk gabeko hondamendi humanitarioa bizi baitu. Ondoren, errefuxiatu sahararren kanpamentuak (1.229.997 euro), Libano (1.200.000 euro) eta Kongoko Errepublikak Demokratikoa (1.100.001 euro) daude, 2022an jasotako finantzaketa antzekoa jaso zutenak.

Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzak finantzatzeko EH premia humanitario handienak dituzten bi eskualdeetan kontzentratzen da, Saharaz hegoaldeko Afrikan eta Ekialde Ertainean; lehenengoak 3.696.737 euro jaso ditu

2023an, eta bigarrenak 3.575.172 euro; bien artean finantzaketaren % 70 jaso dute. Atzetik daude Afrika iparraldekoa (1.229.997 euro) eta Hego Amerika (1.083.620 euro), 2023ko Eusko Jaurlaritzaren EHren % 12 eta % 11, hurrenez hurren. Azkenik, finantzaketa gutxien jaso duen eskualdea Ekialdeko Asia da, 200.000 euroekin, funtsen % 2 besterik ez.

6. GRAFIKOA. Eusko Jaurlaritzak 2023an herrialde eta lurraldeen arabera esleitutako EHren banaketa



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAN OINARRITUTA

Espainiar estatuko TEei dagokienez, EHra bideratutako funtsak nabarmen murriztu dituztela ikus dezakegu; izan ere, 2022an 11,2 milioi euro bideratu zituzten, eta 2023an, 8,8 milioi euro. Murrizketa handia bada ere (2,4 milioi euro gutxiago), adierazi behar da TEen finantzaketa-maila oso altua dela, bereziki bilakaera historikoari erreparatuz gero: 2022 arte Espainiako TEek, guztira, inoiz ez zuten 5 milioi euro baino gehiago bideratu EHrako.

Autonomia erkidegoen analisiak adierazten du 5 erkidegotako TEek soilik murriztu dutela finantzaketa, eta gainerakoek, berriz, handitu. Murrizketarik handienak Madrilgo eta Valentziako Erkidegoko tokiko erakundeek dira: Madrilgo, 2022an baino 3,3 milioi euro gutxiago, eta Valentziako milioi bat gutxiago.

12 autonomia erkidegotako tokiko erakundeek EHrako finantzazioa handitu dute, kopuru txikietan bada ere. Erkidego batzuetan, ordea, kopuruak ez dira txikiak izan: Kataluniako TEek 1,6 milioi euro gehiago jarri zuten 2023an, Euskadikoek 386.035 euro gehiago, Aragoikoek 328.247 euro, Kanarietakoek 146.772 euro eta Balear Uhartetakoek 112.254 euro.

TEek EHri egiten dioten ekarpena Autonomia Erkidegoaren arabera aztertuz gero, Euskadi berriro ere nabarmentzen da: EHri funts gehien bideratzen dizkieten tokiko 10 erakundeetatik 4 Euskadikoak dira.

EH finantzatzan duten tokiko erakundeei dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundia nabarmentzen da, berriz ere, sektore horretara diru gehien bi-

7. TAULA. 2023an EH finantzatu duten euskal TEak (eurotan)

TE	Urtean ordaindutako/ aurreikusitako GLO
Bizkaiko Foru Aldundia	559.990
Vitoria-Gasteizko Udala	430.746
Gipuzkoako Foru Aldundia	346.086
Bilboko Udala	185.000
Donostiako Udala	95.269
Zarauzko Udala	47.150
Beasaingo Udala	45.000
Erreneriako Udala	35.000
GUZTIRA	1.744.240

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

deratzen duen tokiko entitatea baita; ondoren, Gasteizko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bilboko Udala daude. Lau erakunde hauek dira, lankidetzaren deszentralizatuaren baitan, EHrekin konpromiso handiena duten erakundeek multzoan daudenak.

Euskal toki erakundeek EHren banaketa geografikoari dagokionez, Saharaz hegoaldeko Afrikak jarraitzen du funts gehien jasotzen duen eskualdea izaten (485.526 euro). Gero, Iparraldeko Afrikak jarraitzen dio (387.273 euro) eta, urrunago, Ekialde Hurbilak (200.990 euro), Ipar Amerikak, Erdialdeko Amerikak eta Karibeak (157.810 euro) eta Hego Amerikak (123.633 euro). Banaketa geografiko horrek egoki erantzuten die premia humanitarioei, Saharaz hegoaldeko Afrika baita krisi humanitario gehien duen eskualdea.

4. Konklusioak eta gomendioak

1. Garapenerako lankidetzak, politika publikoa den heinean, hazkunde ekonomikoa, demokrazia, askatasunak eta herrialde pobretuen ongizate-estatura sendotzen laguntzeaz gain, herritarren elkartasuna bideratzen du. 2023an, Euskadiko erakunde publikoek, guztira, 80.626.488 euro bideratu zituzten Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO). Kopuru horretatik, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak 57.028.711 euroko ekarpena egin du, hau da, erkidegoaren aurrekontu osoaren % 0,39.

Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko otsailaren 15eko 3/2024 Legeak % 0,7a lortzeko konpromiso politikoa ezarri zuen eta kopuru horretara heltzeko, GLO handituko duen ibilbide-orri sendo bat egin behar da, ondo hausnartutakoa. Garrantzitsua da Euskal Lankidetzak jarraitu beharreko ibilbidea gainerako eragileekin batera zehaztea eta aurrekontuari jarraipena egiteko mekanismo egokiak ezartzea.

2. Osasuna funtsezkoa da, eta lankidetzaren finantzatzan duen edozein erakunderentzat lehentasunezko sektorea izan behar da, zuzenean eragiten baitu pertsonen eta komunitateen ongizatean eta garapenean. Gaur egungoa bezalako testuinguru batean, oraintsuko pandemia gogoan hartuz, are nabarmenagoa da lankidetzaren pertsona guztiei eragiten dien osasun globala defendatzeko duen garrantzia. Hala ere, Euskadiko erakundeek 2,4 milioi euro baino ez zituzten bideratu osasunera, eta argi dago kopuru hori ez dela nahikoa. Eusko Jaurlaritzak osasunera bideratutako GLOa bere GLOren guztizkoaren % 2,65 da, ehuneko hori oso urrun dago GLBko herrialdeen batez bestekotik (% 11,17), autonomia erkidegoen batez bestekotik (% 12,68), baita Espainiako lankidetzaren batez bestekotik ere (% 6,9).

Osasun arloko lankidetzaren indartzeak bizikaltatea hobetzeaz gain, mundu mailako egonkortasunari laguntzen dio, baita garapen jasangarriari ere. Nahitaezkoa da Euskal Lankidetzak osasuna lehentasunezko sektoreen artean hartzea, Osakidetzak ordezkatzeko duenarekin bat etorritik: komunitatearen osasunarekiko eta ongizatearekiko konpromisoa, eta osasun arretan elkartasuna, kalitatea, irisgarritasuna eta ekitatea.

3. Mundu globalizatu honetan, osasuna berez lotuta dago beste sektore batzuekin, hala nola ekonomiarekin, generoarekin, ekologiarekin eta gizarte-babesarekin. Toki-, nazio- eta nazioarte-mailan elkarri lotutako erronka horiei aurre egiteko, 2030 arte hedatzen diren Garapen Jasangarriko Helburuek (GJH) lehentasun argiak ezartzen dituzte. Pertsonen eta planetaren ongizatea sustatuko dituen ikuspegi holistikoa bermatzeko, garapen jasangarriko politiketan osasuna integratzea funtsezkoa da.

Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) ezartzeko, eta neurri esanguratsuen hartu ditu 2030 Agendan aurrera egiteko. Gizarte zibileko eragileen parte-hartze aktiboak demokrazia sendotzeaz gain, garapen bidezkoago baterako irtenbideak eta estrategiak aberasten ditu. Ikuspegi inklusibo eta parte-hartzaile hau bermatu nahi bada, gizarte zibileko eragileekin etengabe hitz egin beharra dago.

4. Grapen Jasangarriko 3. Helburuak, "guztiantzat eta adin guztietan bizimodu osangarria bermatzea eta ongizatea sustatzea", osasun arloko lehentasunezko ekintzak bideratzen ditu. Helburu horren baitan, xederik garrantzitsuena osasun estaldura unibertsa-

la (OEU) lortzea da, hau da, "pertsona guztiek kalitatezko oinarritzko osasun-zerbitzuak jaso ditzaten lortzea, finantza-zailtasunek horretan eragin gabe"; horrek baliabide eta politika ego-kiak izatera behartzen ditu herrialdeak.

Eusko Jaurlaritzak baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoz hornitu beharko du osasun-sistema, osasun-eskubidea egiazki beste interes komertzial edo politiko batzuen aurretik jartzen dituen politikak aplikatu beharko ditu, eta osasun-gastu indibidualak (Espainian % 23ra iristen dira) murriztu beharko ditu.

5. Krisi konplexuek eta aspaldidanik kronifikatutako gatazkek, indarkeriak, krisi klimatikoaren eraginak, krisi ekonomikoak eta muturreko pobrezia milioika pertsona mantentzen ditu etengabeko krisi-egoeran eta muturreko hauskortasunean, Ukrainan, Palestinako Lurralde okupatuetan, Afganistanen eta Sudanen hasi eta Yemen, Burkina Faso, Myanmar, Haiti edo Kongoko Errepublika Demokratikoraino. 2023an, 117,3 milioi pertsona zeuden behartutako desplazamendu egoeran, hau da, 2022aren amaieran baino % 8 gehiago; gainera, 59 herrialde eta lurraldetako 281,6 milioi pertsonak elikagaien segurtasun falta larriari aurre egin behar izan zioten.

Ekintza Humanitarioari (EH) dagokionez, bai kopuruan bai ehunekoetan, garrantzitsua da euskal lankidetzak lidergotzan jarraitzea, gainerako Autonomia Erkidegoei (AE) bidea markatuz. Eta, EHrako Estrategian adierazten den bezala, funtsezkoa da epe luzerako begirada duten eta denboran zehar iraungo duten ekintza humanitarioari lotutako jarduerak finantzatzea.

6. Krisiak gero eta konplexuagoak dira eta gehiago luzatzen dira; alta, laguntza behar duten pertsonen kopurua handitu ahala, espazio humanitarioa murriztu egiten da: elikagaiak gerra-arma gisa erabiltzen dira, eta herritarren, azpiegitura zibilen eta langile humanitarioen aurkako erasoak gero eta ohikoagoak dira. Gaza da azken adibidea, baina ez bakarra.

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta lan humanitarioa arautzen duten gizatasun, inpartzialtasun, neutraltasun eta independentzia printzipioak errespetarazteko, krisi humanitarioek eragindako biztanleentzako sarbidea babesteko, eta nazioarteko, estatu mailako eta tokiko langile humanitarioak babesteko, nahitaezkoa da nazioarteko komunitateak eta gobernuek, bai estatu mailakoek bai erkidego mailakoek, diplomazia humanitarioa erabiltzea.

SIGLAK

Autonomia Erkidego AE	Comunidades Autónomas CCAA
Tokiko Erakunde TE	Entidades Locales EELL
Garapenerako Laguntza Ofiziala GLO	Ayuda Oficial al Desarrollo AOD
Garapenaren Laguntzarako Batzordea GLB	Comité de Ayuda al Desarrollo CAD
Creditor Reporting System CRS	Creditor Reporting System CRS
Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioa	Ministerio de Asuntos Exteriores, Unión Europea y Cooperación MAEC
Garapen Iraunkorreko Politiken Zuzendaritza Nagusia GIPZN	Dirección General de Políticas de Desarrollo Sostenible DGPODES
Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritza NLEI	Secretaría de Estado de Cooperación Internacional SECI
Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa UPEF	Federación Española de Municipios y Provincias FEMP
Espainiako Estatistika Institutua INE	Instituto Nacional de Estadística INE
Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia LEEA eLankidetz	Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad AVCS
Ekintza Humanitarioko Estrategia EAH	Estrategia de Acción Humanitaria EAH
Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa NZH	Derecho Internacional Humanitario DIH
Garapen Bidean dauden Herrialdeak GBH	Países en Vías de Desarrollo PVD
Sexu- eta Ugalketa-Osasuna SUO	Salud sexual y reproductiva SSR
Gaixotasun Ez Kutsakorrek GEK	Enfermedad No Transmisible ENT
Osasun Estaldura Unibertsala OEU	Cobertura Sanitaria Universal CSU

OSASUNA MUNDUAN

MUNDUKO
BIZTANLERIAREN
% 55EK EZ DU
OINARRIZKO
OSASUN-PREMIAK
ASETZEKO
ESTALDURARIK



Martxa honetan, GJHen xedeen % 10 baino ez dira beteko 2030erako, eta bereziki modu negatiboan nabarmentzen dira Osasun Estaldura Unibertsala eta amaren heriotza-tasa: baliabide gehiago behar dira, osasun-sistema publikoak indartu behar da, lehen mailako arreta lehenetsi eta osasunaren determinante sozial eta komertzialak landu.

ETORKIZUNeko
PANDEMIETATIK
BABESTEKO,
NAHITAEZKOA DA
ITUN PANDEMIKO
ERAGINKOR BAT
ADOSTEA



Itun Pandemiko bat behar dugu, aurreko pandemietan erakutsi diren egoismoak gaituzko dituen, gobernantza publiko indartsu baten bidez kudeatuko dena, genero-ikuspegia izango duena, konponbideak modu ekitatibo eta inklusiboan bideratuko dituen, jabetza intelektualak sortutako oztopoei helduko diena eta ebidentzian oinarrituko dena.

OSASUN-LANGILE
ESKASIA ARAZO
LARRIA DA, OSASUN-
SISTEMAK GARATZEA
ERAGOZTEN DU



10 milioi osasun-profesional falta dira munduan, batez ere errenta ertain eta baxuko herrialdeetan, eta datozen urteetan erretiroa hartuko duten langileak ordezkatzeko, beste 1,8 milioi profesional beharko dira. Hori dela eta, mundu mailako erantzuna behar da, plangintza, eta langileen prestakuntza eta kudeaketa egokia.

2030EAN,
MUNDUKO OSASUN
MENTALAK 6
BILIOI DOLARREKO
KOSTUA IZAN
AHALKO DU



Osasun mentaleko arazoak dira nazioarteko komunitatearen arreta txikiena jasotzen dutenak. 2019an, munduko biztanleriaren %13k buruko gaitzen bat izan zuen, %52,4 emakumeak ziren. Beharrezkoa da osasun mentaleko zerbitzueta-rako sarbidea zabaltzea, estigma murriztea eta laguntza integrala eta jarraitua ematea.

EKINTZA
HUMANITARIOAK
GERO ETA
OZTOPO GEHIAGO
DITU



Herritarren, azpiegitura zibilen eta langile humanitarioen aurkako erasoak gero eta ugariagoak dira; horregatik, funtsezkoa da Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa errespetatzea eta errespetaraztea, biztanleria zibilarengana iritsi ahal izateko eta langile humanitarioak babesteko.



**Medicus Mundi Elkartean
Federazioa Espainian**

Lanuza kalea, 9, lokala
28028 Madril

Tel.: 91 319 58 49 / 902 101 065
federacion@medicumundi.es
www.medicumundi.es



Munduko Medikak

Conde de Vilches kalea, 15
28028 Madril

Tel.: 91 543 60 33
informacion@medicosdelmundo.org
www.medicosdelmundo.org